

Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

BISITAK ETA IBILALDIAK

[Pasaporteak ¡Museatu! eta bidaiatu](#)

Museoak eta bildumak

2018/04/20 - 2018/10/20

Bidaia bat prestatzea inoiz ez da hain erraza izan. Pasaporteak hiri eta herri berezietara txango motzak planifikatzea ahalbidetuko dizu eta arte garaikide, arte eder, arkeologia, etnografia eta pertsonaia bereziei buruzko museoetan esperientzia paregabeak bizitzeko aukera izango duzu. Anitzak eta kalitate onekoak diren bildumak eta testigantzak agertzen dituzten museo xarmangarriak. Eta hori guztia, Nafarroatik atera gabe.

Taldean edo familiarekin, bikotearekin edo bakarrik, hamahiru museo eta bilduma hauek zain dituzu haien bilduma eta jardueraz zurekin gozatzeko. Gainera, hiru baino gehiago bisitatzen badituzu, sariak lor ditzakezu.

Pasaporteak pertsonala eta/ edo familiarra da. Doakoa da eta hamahiru zentroetan eskuratu daiteke sarreran. Erakunde bakoitzaren zigilua bisita egindakoan eskuratuko da.

[Katedraleko klaustroaren lanak](#)

Iruñeko katedrala

Igandea / 10:00, 11:00, 12:00.

Bisitak doakoak dira, eta hiru ordu hauetan egiten dira: 10:00, 11:00 eta 12:00etan. Ordubeteko iraupena dute, gutxi gorabehera. 14 urtetik gorakoak izan behar dute bisitariak, eta mugikortasun-arazorik ez izan. Oinetako lau eta erosoak eraman beharko dituzte, obrako aldamiotik ibili beharko baitute.

ERAKUSKETAK

[Arma isilak gerra lasaietarako](#)

Oteiza Museoak

2018/06/01 - 2018/09/30

Oteiza Museoak berreskuratu egin du Interpretazioak programa, Imanol Marrodan artistak Altzutzako zentroan egin duen “Arma isilak gerra lasaietarako” erakusketa-proiektuarekin.

Oteizaren obrarekiko topaketa-gune bat sortu nahi duen programako hamargarren interbentzioa da jada. Programa bera museoetako bigarren solairuan garatzen da, erakusketa iraunkorrekiko solasean, eta Oteiza Museoak Eguesibarko Udalarekiko elkarlanean produzitu erakusketa-proiektu hau ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean garatuko da.

HAURRENTZAKO-AISIA

[Ongi etorri ipuinetara](#)

Nafarroako Liburutegia. Haurren liburutegia

Asteazkena / 18:00etan.

Ipuin-kontalaria.

Saioa gaztelaniaz Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez irakurriko dira ipuinak.

Sarrera: librea, aretoa bete arte

Boluntarioekin egiten da jarduera.

KONFERENTZIAK

[La vida en Armenia](#)

Nafarroako Liburutegia. 1. solairuko aretoa

Astearte / 19.00etan

Zikloa: Bidaiariak. Emakumeak on the road

Hizlaria: Virginia Mendoza

Sarrera librea, aretoa bete arte. Prezioa: doakoa

[El desierto de los tártaros, Dino Buzzatirena](#)

Nafarroako Liburutegia. 1. solairuko aretoa

Asteazkena / 18:00etan.

Zikloa: Literatura unibertsaleko zortzimilakoak: Nafarroako Liburutegiko klasikoetara hurbiltzeko programa bat

Hizlaria: Regina Salcedo

Sarrera librea, aretoa bete arte. Prezioa: doakoa

KONTZERTUAK

[Miguel Ituarte, pianoa](#)

Baluartea (Ganbera Aretoa)

Astearte / 20.00etan

Musika-Difusioko Nazio-Zentroarekin (CNDM) elkarlanean, eta Egungo Beethoven lelopean, Ludwig van Beethoven musikagilearen 32 sonaten integrala eskainiko da, espainiar pianista gailenen esku. Programa osatuz, Ligetiren estudioak eta gaur egungo espainiar musikagileen obrak. Egungo Beethoven programaren azken kontzertuak Miguel Ituarte piano-jotzailea izango du protagonista.

TAILERRAK

[APERITIFAK: Soinu kanpina](#)

Huarte zentroa

Larunbata / 12.30etan

Egilea: Chico Trópico

Sarrera librea.

Publiko osoari zuzendua

La COSA, grabaketa estudio-karabanan egindako lana aurkeztuko digu Chico trópico kolektiboak. Soinu kanpina Berriozarreko karriketan ibili da maiaitzean bizilagunen soinu eta musikak grabatzen. Aperitifaken soinu instalazioak eta ikusentzunezkoak jarriko dira sorkuntza komunitarioaren prozesua ikusi ahal izateko. Soinu barbakoa batean egindajo txorizoa dastatzeko aukera ere egonen da.

[Artxiboa plazara!](#)

Uharte Zentroa

2018/05/18 - 2018/07/01

Nola harremantzen da komunitate bat iraganean ekoiztutako irudiekin? Uhartera gerturatzeko gara irudi filmikoen bilketa bat egin eta artxibo bat sortzeko asmoz. Interes pertsonaletik abiatzen gara, irudi ekoizle izanik, erabili gabe gelditu den material filmikoa Bildu eta ber aktibatze asmoa dugu ikuskatze kolektibo eta bideo sorkuntza tailerren bidez.

[Ikerketa proiektuak garatzeko egoitza](#)

Huarte Arte Garaikideko Zentroa

2018/04/30 - 2018/09/30

Komisariotzaren inguruko ikerketa proiektuak garatzeko bi egoitza deialdi luzatzen ditu Uharte Zentroak (bata, lekuko agenteei zuzendua, eta bestea, bertakoak ez direnentzat). Helburua, praktika honen alderdiak Nafarroan zehar barreiatzea da.

[Zeharkako estetikak | Aisialdiko ekosistemak](#)

Huarte Zentroa

2018/04/21 - 2018/06/11

Egoitza artistikorako deialdia eta Uharte, Atarrabia eta Burlata udalerrien testuinguru soziala kontuan hartuko duen proiektu baten garapena.

[Toisoiaren ebasketa, escape room-ean](#)

karlismoaren Museoan (Estella-Lizarra)

2018/05/18 - 2018/10/14

Karlismoaren Museoak dei egiten dizue parte hartzera Toisoiaren ebasketa, escape room-ean. Museoen Nazioarteko Egun eta Gauaren kariatara eginen da, 2018ko maiatzaren 18an, eta irekita egonen da 2018ko urriaren 10era arte.

ZINEMA

[¡Qué verde era mi valle!](#)

Nafarroako Fimoteka

Asteazkena | 20.00etan

Melodrama honek arrakasta handia izan zuen 1941ean, bost Oscar sari irabaziz (film onena, zuzendari onena, antzezle onena, argazkigintza onena txuri eta beltzean, dekorazio onena txuri eta beltzean). Ciudadano Kane film ezagunak baino sari gehiago irabazi zituen beraz zinemaldi hartan.

Roldán Jimeno-k aurkeztuko du filma. NUP-eko Zuzendaritzaren Historiako irakasle titularra.

Zuzendaritza: John Ford.

[Cuando dejes de quererme](#)

Nafarroako Fimoteka

Osteguna / 20.00etan

Nafar Fimoteka

Igor Lejarreta zuzendaria gurekin egongo da aurkezpenean eta solasaldian.

Laura (Flor Torrente) Buenos Aires-en bizi da bere aitaorde Fredorekin (Eduardo Blanco). Haur bat besterik ez zenean, bere amarekin Euskal Herritik alde egingo zuen, bere aitak utzi zituen eta.

Cuando el destino nos alcance

Nafarroako Filmoteka

Ostirala | 20.00etan

Harry Harrison-en ¡Hagan sitio!, ¡Hagan sitio! (1966) filmean oinarrituta. Saturno Saria – 1975eko Golden Scroll zientzia fikzio film onenari saria, Avoriaz 1974ko Zinema Fantastiko Zinemaldiko Saria eta Richar Fleischer Saria irabazi zituen. 1974ean aurkezpen dramatiko onenari Bebula Saria irabazi zuen ere (Stanley R. Greenberg, gidoia, y Harry Harrison, eleberria).

Zuzendaritza: Richard Fleischer